

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Errepidean hildakoak eragin dituzten istripu kopurua erdira murriztu da urtea hasi zenetik

2011ko lehen bost hileetan zortzi hildako izan ziren; aurreko urteko garai berdinean, aldiz, 17 izan ziren hildakoak

Miércoles, 01 de junio de 2011

Nafarroako errepideetan hildakoak eragin dituzten istripuak % 53 murriztu dira urteko lehen bost hilabeteetan, Barneko Zuzendaritza Nagusiak maiatzeko azken datuak aintzat hartuta egin duen behin-behineko balantzearen arabera.

Urteko lehen hiruhilekoan zortzi hildako izan ziren bideko ezbeharretan, sei Nafarroako Gobernuako hiriarteko errepideen sarean eta bi hiri barruko bideetan eta bestelako bideetan. Aurreko urtean, garai berdinean, aldiz, 17 hildako zenbatu ziren, 12 hiriarteko errepideetan eta bost bestelako bideetan.

Urtea hasi denetik hil direnetatik lau gizonezkoak eta lau emakumezkoak izan dira, horietatik zazpi istripuetako ibilgailuen gidariak izan ziren (horietatik bat txirrindularia) eta zortzigarrena oinezkoa. Aurtengo ekitaldian, hildakoak eragin dituzten istripuak Antsoainen, Barasoainen, Iruñean, Tuteran, Itzan, Puiun, Vianan eta Arguedasen gertatu dira. 2010ko garai berdinean 15 gizonezko eta bi emakumezko hil ziren errepide istripuetan.

Maiatzeko balantzea

Maiatzean gertatu diren trafiko istripuen behin-behineko balantzeak aurten eman den beherako joerari eutsi dio bai hildakoak eragin dituzten eta hildakorik eragin ez dituzten ezbeharren kopuruari dagokionez bai istripua izan dutenen larritasunari erreparatuz gero.

Gauzak horrela, azken hilabetean 292 istripu zenbatu dira (253 hiriarteko bideetan eta 39 hiriko eta bestelako bideetan) eta iazko garai berdinean 310 istripu gertatu ziren (263 hiriarteko bideetan eta 47 bestelako bideetan), beraz, horrek esan nahi du % 6 egin dutela behera istripuek. Zauritu larrien kopurua ere 14tik 12ra jaitsi da, hau da, % 14 murriztu da. Zauritu arinak 50 izan dira, aurreko urteko maiatzean baino bat gutxiago, hortaz, % 2 egin dute behera.

2010an, Nafarroako errepideetan 39 pertsona hil ziren, 2000an baino % 70 gutxiago, orduan 118 hildako zenbatu baitziren. Datu horiek lortuta, Foru Erkidegoak duela hamarkada bat Bide Segurtasunari buruzko Europako Gutunean ezarritako helburuak aise lortu ditu. Orduan, 2010 baino lehen errepideko ezbeharrek erdira murrizteko helburua proposatu zuen, baina 2006an bete zuen jadanik helburu hori.

Gobernuak, joan den apirilean, Europako Gutunerako atxikipena eta

bide segurtasunaren alorreko konpromisoak berriro zituen. Konpromiso horiek Europako agirian zehaztutako hamar lan esparruetan dute oinarria: bide eta gizarte hezkuntza, bide prestakuntza, azterlanak eta ikerketak, bideak, ibilgailua, mugikortasuna, prebentzioa, informazioaren tratamendua eta istripuaren ondorengo laguntza.